

Euskadiko gazteen % 42k kontsumitu dituzte noizbait Bidezko Merkataritzako produktuak

Produktu horietako kontsumoa zabalduago dago nesken artean mutilen artean baino, baita adinean gora egin ahala ere

2013ko maiatzaren 11n [Bidezko Merkataritza](#)ren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hori dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k Euskadiko gazteen artean horrelako produktuak kontsumitzea zenbateraino dagoen zabaldua adierazi nahi du.


Horretarako Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako [Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean](#) liburuan argitaratutako emaitzak hartu ditu. Liburu hori 2010eko azaroa eta abendua bitartean eginiko ikerketa batean oinarritzen da. Ikerketa horretan 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu ziren.

Ikerketaren emaitzen arabera esan dezakegu Euskadiko gazteen % 70k ezagutzen dutela Bidezko Merkataritza eta % 42k erosi dutela produktu horietakoren bat.

Neskek mutilek baino neurri handiagoan erosten dituzte Bidezko Merkataritzako produktuak (% 47 eta % 37, hurrenez hurren).

Bizkaiko gazteak dira horrelako produktuak neurri handienez erosten dituztenak (% 45) eta Arabakoak, aldiz, neurri txikienez erosten dituztenak (% 37). Gipuzkoan gazteen % 41k erosi dute Bidezko Merkataritzako produkturen bat.

Adinean gora egin ahala produktu hauen kontsumoa ere areagotzen da: 15 eta 19 urte bitarteko % 31k erosi izan dituzte, 20 eta 24 urte bitartekoen artean % 38k eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 51k.



Produktu hauen balorazioari dagokionez, erosle gehienek beste motatako produktuen kalitate berdina dutela diote (% 65), beste % 25ek kalitate hobea dutela uste dute (% 25) eta % 2k bakarrik diote beren kalitatea txarragoa dela. Beste % 6k ezin dela balorazio orokorrik egin argudiatu dute, beren ustez produktu batzuk hobekak dira eta beste batzuk txarragoak, azkenik, gainontzeko % 2k ez dute beren iritzia aditzera eman.

Prezioari dagokionez, produktu horietako erosle gazteen % 53k garestiagoak izaten direla esan dute. Beste % 20ren iritziz ez dago alderik prezioetan eta % 16k merkeagoak izaten direla esan dute. % 7k batzuk garestiagoak direla eta beste batzuk merkeagoak direla adierazi dute eta gainontzeko % 3k ez dute ezer adierazi.

Erosle gazteak adinean gora egin ahala produktu hauek kalitate hobea dutela baita garestiagoak izaten direla diotenen ehunekoek gorantz egiten dute.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

